



Osasuna Politika Guztietan

BATZORDE TEKNIKOA



Txosten
sektoriala **2020**

Lehendakaritza

2022ko otsailaren 7an



Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

LEHENDAKARITZAREN IDAZKARITZA NAGUSIAREN KOORDINAZIORAKO ZUZENDARITZAREN MEMORIA, 2020AN EUSKADIKO 2013-2020 OSASUN PLANAREKIN LOTUTA EGINDAKO JARDUEREI BURUZKOA.

Koordinaziorako Zuzendaritza Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusian dago, eta Osasuna Politika Guztietan jarraitzeko Batzorde Teknikoan (PGOBT) parte hartzen du, Euskadiko 2013-2020 Osasun Planaren gobernantza-aurreikuspenei jarraikiz eta Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen Lehendakariaren urtarrilaren 19ko 5/2021 Dekretuaren 9. artikulua esleitzen dizkion eskumenen babesean.

PGOBTaren eta 2013-2020 Osasun Planaren Batzorde Gidariaren erantzukizunen esparruari dagokionez, adierazi behar da aurrez aipatutako organoek (Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusia eta Koordinaziorako Zuzendaritza) Gobernu Programarekin eta Plangintza Estrategikoarekin lotutako eskumenak dituztela esleituta.

2019an gauzatutako jardueri buruzko memorian, gogoeta jakin batzuk gauzatu ondoren, hainbat jarduera-konpromiso hartu zituen Koordinazio Zuzendaritzak, 2020ko ekitaldirako. Hona hemen konpromiso horien gauzatzea:

- 1.XI. Legegintzaldiko Gobernu Programan sail bakoitzerako aurreikusitako konpromisoak eta ekimenak eta 2013-2020 aldirako Euskadiko Osasun Planaren helburuak eta ekintzak kontrastatu ondoren, ondorioen proposamen bat egin zen, inplikaturako organo guztietako agintari arduradunei helarazteko. Asmoa zen sailen ekarpenekin eta gogoetekin dokumentu bat egitea, haien arteko lotura modu adostuan islatuko zuena, eta hala izan da.

2. Zerbitzu eskudunei laguntza emateko konpromisoari dagokionez, une bakoitzean indarrean dagoen Gobernu Programaren konpromisoak eta ekimenak betetzen dituzten eta aurreko paragrafoan aipatzen diren konpromisoak eta ekimenak lotzen dituzten sailen jardueren jarraipenari dagokionez, adierazi behar da normaltasun egokiarekin gauzatu dela. Lehendakariak 2020ko irailaren 5ean eman zuen karguaren zina, eta Gobernu berriak irailaren 8an egin zuen lehen bilera. 2020ko urriaren 13an, XII. Legegintzaldiko gobernu-programa aintzat hartu, eta Legebiltzarrera bidali zuen Gobernuak. Une horretatik aurrera, konpromiso programatiko berriaren izaeraren arabera egin da kontraste-lana. Jarraipen-lan horretan, inplikaturako sailekin kontrastatzeko eta lankidetzan aritzeko formulak erabili dira.

2020an, bi aldiren amaiera bizi izan genuen – XI. Legegintzaldiarena eta 2013-2020 aldirako Euskadiko Osasun Planaren aplikazioarena –, bai eta XII. Legegintzaldiaren hasiera ere, zeinak, aipatu dugun bezala, dagoeneko baduen dagokion gobernu-programa. Osasun Planari dagokionez, azken ebaluazioaren lanak amaitu ondoren, hura ordeztuko duen plangintza-tresna prestatzeari ekingo zaio, eta 2021-2028ko Osasun Plan Estrategiko gisa identifikatu da Gobernu Kontseiluak 2020ko abenduaren 15ean hartutako akordioan. Akordio horretan, XII. Legegintzaldiko plan estrategikoen zerrenda eta horiek izapidetzeko prozedura onartu dira. 2018ko jardueren memorian -2019ari buruzkoan errepikatu da- honako adierazpen hau adierazi genuen, eta erabateko birtualitatea du gure ustez:

“Gobernuaren programazioaren eta plangintzaren arteko harreman estua, gogoeta- eta balorazio-prozesuen informazio-ildoetan bat etorri beharra eta lortu beharreko helburuak eta ebaluatu beharreko mekanismoak zehaztea direla eta, etengabeko kontrastea egin behar da bi jarduerak politikoki bideratzeko printzipio, definizio, ekintza eta gainerako tresnen artean”.

Aukera berri baten aurrean gaude 2021-2028 aldirako Osasun Plan Estrategikoan egin behar diren definizio eta diseinu programatiko eta planifikatzaileei dagokienez. XI. Legegintzaldiko Gobernu Programaren eta 2013-2020 aldirako Euskadiko Osasun Planaren edukietan egiaztatu den koherentziak jarraipena ematen dion tresnari eutsi beharko dio.

Koordinaziorako Zuzendaritzaren 2021eko ekitaldirako konpromisoei dagokienez, honako hau proposatzen da:

1. Lehendakariaren urtarrilaren 19ko 5/2021 Dekretuak, Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak, esleitzen dizkion eginkizunak betetzen laguntzea 2021-2028 aldirako Osasun Plan Estrategikoa prestatzeko lanetan. Plan horren edukiak eta onartzeko prozedurak kontuan hartu beharko dituzte Gobernu Kontseiluaren 2020ko abenduaren 15eko erabakian jasotako orientabideak. Koordinaziorako Zuzendaritzak txosten bat egin beharko du jarraibide horiek betetzeari buruz, besteak beste.
2. Sailekin lankidetzan, XII. Legegintzaldiko gobernu-programari jarraituz 2021-2028 aldirako Osasun Plan Estrategikoaren helburuekin zerikusia duten konpromisoak eta ekimenak betetzearekin zerikusia duten jardueren jarraipena egitea.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko apirilaren 6an

Luis Petrikorena Arbelaitz
Koordinaziorako zuzendaria